

**MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK****BEKA EZ UNIBERTSITARIOAK. 2024-2025 ikasturtea****1. Zein da aurkezteko epea?:**

- Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik hasita, 2024ko irailaren 30era arte.
- Matrikula 2024ko irailaren 30a baino geroagokoa bada, beka-eskaera aurkezteko epea hilabetekoa izango da, matrikula egiten den egunetik hasita. Edonola ere, 2025eko apirilaren 30era arte baino ez dira onartuko beka-eskaerak.

2. Non eskura dezaket eskabide-orria? Bete ondoren, non aurkeztu behar dut?

- a) 2023-2024 ikasturtean beka edo laguntzaren onuradun izan ziren eta matrikula kudeatzeko aplikazioan sartutako irakaskuntzetan ikasten ari diren ikasleei dagoeneko betetako eskabide-zirriborrea emango zaie SMS eta/edo posta elektronikoko bidez bidaliko dira. Eskabide-zirriborro hori Ikasgunetik ere eskura dezakete.
- b) Gainerako ikasleek modu elektronikoa egin ahal izango dute eskaera. Horretarako, honako helbide honetara jo beharko dute: <https://www.euskadi.eus/unibertsitateaz-kanpoko-bekak>
- c) Eskabide-orria Ikastetxean ere jaso ahal izango da.

3. Bi ikasketa desberdin egiteko beka eska al daiteke?

Ikasle batek ere ezin izango du deialdi-aginduan araututako beka edo laguntza bat baino gehiago jaso, nahiz eta aldi berean bertan zerrendatutako ikasketa mota bat baino gehiago egin. Ikasle batek beka-eskaera bat baino gehiago aurkezten badu, erregistratutako azkena baino ez da izapidetuko.

4. Autonomia Erkidegotik kanpo erroldatuta egonez gero, beka eska al dezaket? Bai, ikastetxea Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta badago.**5.- Zer baldintza akademiko bete behar ditut?****a) Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleak:**

- Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeren batean matrikulatuta egotea.

b) Gainerako ikasleak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeren batean matrikulatuta egotea.
- Ikastaroa errepikatzen ez aritzea.
- Batxilergoko lehen mailako eta goi-mailako ikasketetako ikasleek, gainera, 5 puntuko batez besteko nota lortu beharko dute ikasketa horiek egiteko gaitzen duen ikasturtean.
- Goi-mailako ikasketetako bigarren mailako ikasleek 2023-2024 ikasturtean egindako ikasketen % 85 gainditu beharko dute gutxienez.

6. ¿Zein laguntza jaso ditzaket? Baldintza guztiak betez gero, honakoak jaso ditzakezu:

a) Haur Hezkuntza 1. zikloa

Kuota-osagaia

- 0 urteko eta urte leko ikasleak, gehienez 90 euro hileko, gehienez ere 10 hilabetez. Osagai hori ezin da izan, inola ere, matrikulatuta dagoen ikastetxeari ikasleak ordaindu beharreko kuota baino handiagoa.
- 2 urteko gelako ikasleak: 200 euroko ordainketa bakarra. Ez da egongo ikastetxe publikoetan, itunpeko ikastetxeetan eta kontzeptu honengatik kuota ordaintzen ez duten ikastetxeetan.

Jantoki-osagaia: 2 urteko gelakoentzat, gehienez ere 818,80 euro izango dira; zenbateko hori honela kalkulatu da: jantokiko egun kopurua (178 egun, gehienez ere), bider eguneko prezioa, gehienez ere, 4,60 eurokoa izanik.

b) Haur Hezkuntza 2. zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Musika eta Dantzako oinarrizko ikasketetako ikasleentzat:

- Eskola-materialen osagaia.
- Jantoki-osagaia: soilik Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Hezkuntza Bereziko mailentzat. Gehienez ere 818,80 euro izango dira; zenbateko hori honela kalkulatu da: jantokiko egun kopurua (178 egun, gehienez ere), bider eguneko prezioa, gehienez ere, 4,60 eurokoa izanik

c) Batxilergoko Irakaskuntzetako, Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako Irakaskuntzetako, Arte Irakaskuntza Profesionalak eta Kirol Irakaskuntzetako ikasleak:

- Eskatzailearen errentari lotutako zenbateko finkoko osagaia.
- Eskatzaileak ikasturtean duen bizilekuari lotutako zenbateko finkoko osagaia.
- Oinarrizko bekaren osagaia.
- Errendimendu akademikoan izandako bikaintasunari lotutako zenbateko finkoko osagaia.
- Zenbateko osagarriaren osagaia.

Oinarrizko bekaren osagaia bateraezina izango da eskatzailearen errentari lotutako zenbatekoarekin.

d) Oinarrizko Lanbide Heziketa eta Hizkuntzako ikasketak egiten dituzten ikasleak.

- Oinarrizko bekaren osagaia.
- Zenbateko osagarriaren osagaia

e) Lanbide Heziketako irakaskuntzetako eta Batxilergoko irakaskuntzetako ikasleak, gaueko modalitatea, ez-presentziala edo matrikula partziala egiten dutenak:

- Oinarrizko bekaren osagaia.
- Zenbateko osagarriaren osagaia

f) Berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleentzako laguntza eta sorospen espezifikoak (III. kapitulua). Osagaiak eta betekizunak dokumentu honetako²² puntuan zehazten dira.

7. Inprimakiaren zein ataletan adierazi behar dut eskatu nahi dudana beka mota?

Ez da leku zehatz batean adierazten, eskaera bakarra baita. Familiaren egoera ekonomikoaren, ikasketa motaren eta abarren arabera, dagozkien osagaiak emango zaizkie.

8. Zein agiri aurkeztu behar ditut?

2023-2024 ikasturteko beka jaso baduzu, soilik 2023-2024 ikasturtean emandako datuekiko aldaketarik egon bada, aipatutako datuen aldaketak egiaztatzen dituzten dokumentuak erantsi beharko dira.

2023an elkarbizitza-unitatean lortutako diru-sarrerari dagokienez, soilik dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- Errentaren Aitorpenaren fotokopia, Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan aurkeztu ez bada.
- Bizikidetzaren diru-sarrerak justifikatzeko egoki iritzitako beste edozein dokumentu (Ogasunean daturik ez dutenek): gizarte zerbitzuak, Caritas, Gurutze Gorria, eta abar

2023-2024 ikasturtean ez baduzu bekarik jaso:

- Errentaren Aitorpenaren fotokopia, Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan aurkeztu ez bada.
- Bizikidetzaren pertsonen erroldatze-ziurtagiria, administrazioak ofizioz egiaztatzeko baimena eman ez baduzu. Basaurin (015), Bermeon (017), Leioan (054), Ortuellan (083), Mungian (069) eta Usansolon erroldatutako eskatzaileek, edozein kasutan, bizikidetzaren edo familia-unitatearen ohiko bizilekuaren errolda kolektiboaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
- Bizikidetzaren diru-sarrerak justifikatzeko egoki iritzitako beste edozein dokumentu (Ogasunean daturik ez dutenek), : gizarte zerbitzuak, Caritas, Gurutze Gorria,
- Familia ugaria, guraso bakarreko familiak (banantzeak, alarguntza...), zuztasun, minusbaliotasun, familiaren etxetik kanpo bizi diren anai-arreba unibertsitarioak, eta abarren ziurtagiriak.

9. Zeintzuk dira gaintitu ezin ditudan diru-sarrerak? Zergatik dago diru-sarrera taula bat baino gehiago?

Lor daitezkeen laguntza mota desberdinetarako, gaintitu ezin diren gehieneko diru-sarreraren mugak dituzten hainbat taula daude. Muga horiek familia-unitateko kide kopuruaren, laguntza motaren eta ikasketa-mailaren arabera aldatzen dira.

10. PFEZaren aitortzea aurkeztu ez badut. Zer emango dut eskaerarekin bizibideak justifikatzeko?

Jasotako diru-sarrerak, bizibideak edo laguntzak egiaztatzen dituen edozein agiri (lan-kontratuen kopia, 10T), bai eta udaleko gizarte-zerbitzuek edo Gurutze Gorriak, Caritasek eta GKEek emandako ziurtagiriak ere.

11. Nola kalkulatu dira familiaren diru-sarrera garbiak?

1.– 2023ko ekitaldian PFEZaren aitortzea aurkeztu duten kide konputagarrien errenta zehazteko, **zerga-oinarri orokorra eta aurrezkiaren zerga-oinarria batuko dira**. Zerga-oinarri orokor osoak edo zati batek jarduera ekonomikoen etekinak baditu, eta etekin horiek zeinu negatiboa badute, emaitza 0 izango da. Gainerako zenbatekoari **kuota likidoa kenduko zaio**. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasota ez dauden diru-sarrerak eta laguntzak gehitu egingo zaizkio aurreko formularekin ateratako emaitzari.

2.– Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortzea egiteko obligaziorik izan ez, eta halakorik aurkeztu ez duten kide konputagarrien errenta honela kalkulatu da:

a) 2023ko ekitaldian edozein kontzeptu dela-eta lortutako diru-sarrera guztiak batuko dira (lan-etekina, langabezia-prestazioak eta -laguntzak, pentsioak, gizarte-laguntzak, salbuetsitako errentak...), baita ohiko etxebizitza ez diren hiri-ondasunen etekina ere –PFEZaren ondorioetarako konputagarria–, betiere 2023ko ekitaldian aplikatzekoa den zerga-araudiaren arabera.

b) Batura horretatik kendu beharko da kasu bakoitzean aplikatu beharreko PFEZren arauak aurreikusten dituen gastu kengarriak (Gizarte Segurantzaren, etab.) eta konturako atxikipenek sortutako zenbatekoa.

12. Noiz ordaintzen da beka? Nola jakingo dut?

Laguntzak, beka eta sorospenak dena batera ordainduko dira, **behin betiko ebazpena eman eta hilabeteko epean.**

Ebazpenak, behin-behinekoak zein behin betikoak, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-oholean (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>) eta Hezkuntza Sailaren web-orrian (<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus>) argitaratuz jakinaraziko dira. Iragarki-taula horretan argitalpenak egiten direnean, interesdunei SMS eta/edo posta elektronikoko bidez jakinaraziko zaie.

Behin-behineko ebazpenari alegazioak aurkezteko epea 10 egun balioudunekoa izango da, eta behin betiko ebazpenari errekursoak aurkezteko epea hilabetekoa, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ikastetxean egitezko baja hartu bada, 2024-2025 ikasturtea amaitu baino lehen beka ezetsi egingo da, eta ordaindu bada, itzuli egin beharko da.

13. Laguntza esleitzen badidate, zergatik ez dut nik dirurik jasotzen?

Kudeaketa zuzeneko jantokiak dituzten ikastetxe publikoen kasuetan, jangelako laguntzak zuzenean ematen zaizkio ikastetxeari, eta ikastetxeak laguntza horiek jasotzean, familiei itzuliko dizkie, hala badagokie. Gainerako kasuetan, beka, laguntza edo sorospena eskatzaileak eskabidean adierazitako kontu-zenbakian sartuko da.

14. Jangelako laguntza ematen badidate, zergatik ordaindu behar diot kontzeptu hori ikastetxeari?

Jantokiaren kostua osagaiaren gehieneko zenbatekoa baino handiagoa izan daitekeelako. Gehienez ere 818,80 euro izango dira; zenbateko hori honela kalkulatu da: jantokiko egun kopurua; (178 egun, gehienez ere), bider eguneko prezioa, gehienez ere, 4,60 eurokoa izanik.

15. Ikaslea egunero jangelara joaten ez bada, jangelako laguntza eska al daiteke? Bai, ikasturtean gutxienez 20 egun zerbiztu hori erabiliz gero.

16. Familia ugariagatiko kenkaria?

Familia ugariak kenkari hauek dituzte familia-errentan:

- 525 €famiaren etxebizitzan bizi den anai-arreba bakoitzeko, eskatzailea barne, kategoria orokorreko familia ugarien kasuan.
- 800 €famiaren etxebizitzan bizi den anai-arreba bakoitzeko, eskatzailea barne, kategoria bereziko familia ugarien kasuan.
- III kapituluan adierazitako hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleen kasuan, kenkaria 2.000 €-koa izango da..

17. Iazko diru-sarreraren berdinekin edo antzekoekin, zergatik ez dut laguntza bera jaso?

Muga ekonomikoetako bat gainditzen duzulako edo bizikidetzaren unitateko kideak aldatu egin direlako.

18. Zergatik da handiagoa Haur Hezkuntzarako materialaren osagaia Lehen Hezkuntzarako eta DBHrako baino? Lehen Hezkuntzan eta DBHko ikastetxe publikoetan curriculum garatzeko material didaktikoaren eta bitartekoaren (liburu solidarioak) programa ezarrita dagoelako.

19. Banandutako familien kasuan, aitak eta amak eska dezakete beka?

Ez, bietako batek soilik, ikaslea errolatuta dagarenarekin.

20. Laguntzak beste mota bateko bekekin bateragarriak al dira?

2024-2025 ikasturtean unibertsitate-ikasketak egiteko beka lortu duten ikasleek ezin izango dute agindu honetan araututako ikasketak-laguntza, beka eta subsidiorik jaso.

Gainerako ikasleentzat, laguntza hauek bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik helburu bererako jaso daitekeen edozein onurarekin, betiere guztien baturak laguntzaren xede den gastuaren % 100 gainditzen ez bada.

21. Curriculuma garatzeko material didaktikoaren eta bitartekoen “Liburu solidarioak” programari uko egiten badiot, eskolako materialerako laguntza eska al dezaket?

Ez, programa horri uko egiten badiozu, ez duzu eskolako materialari dagokion inolako laguntzarik jasoko.

22. Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak (III. Kapitulu)

1.- III. kapituluari jasotako laguntzek eta sorospenek hezkuntza-laguntzako premia espezifikoaren tipologia hauetakoren bat/batzuk dituzten ikasleei emango diete arreta:

- a) Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak, Hiperaktibitateagatiko Arreta Defizitaren Nahasmendua (AGHA) duten ikasleak barne, ehuneko 25eko edo gehiagoko desgaitasun-maila edo jokabide-nahaste larria dutenak.
- b) Hezkuntza-premia bereziei lotutako komunikazio- eta hizkuntza-nahasmendu larria duten ikasleak.
- c) Espekto autistaren nahasmenduari lotutako hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak.
- d) Adimen-gaitasun handiari lotutako hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak..

Ikasleek 2024-2025 ikasturtean egon beharko dute erregistratuta hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasle gisa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren aplikazio informatikoan, eta ikastetxe espezifiko batean, ikastetxe arrunt bateko hezkuntza bereziko unitate batean edo hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak eskolatze baimena izan duen ikastetxe arrunt batean eskolatuta egon beharko dute.

Laguntza eta sorospena motak:

Irakaskuntza-laguntza:.....	862 €-ra arte
Eskola-garraiorako laguntza.....	617 €-ra arte
Eskola-materialerako laguntza, zereginen ikaskuntzako ikasleentzat:.....	204 €-ra arte
Bereziketa pedagogikorako laguntza:.....	913 €-ra arte
Hizkuntza berrezteko laguntza:.....	913 €-ra arte
Gaitasun handiko ikasleentzako laguntza.....	913 €-ra arte
Eskola-garraiorako sorospena:.....	617 €-ra arte
Eskolarako laguntzailearen sorospena:.....	574 €-ra arte
Diru-kopuru fija gastuetarako sorospena:.....	400 €

Jantokiko eta garraioko sorospenak a), b) edo c) letretan aipatzen diren eta familia ugaria diren ikasleei dagozkie.

Gaitasun handiko ikasleentzako programa espezifikoetarako, berreziketa pedagogikorako eta hizkuntza berrezteko laguntzetarako, zerbitzua ematen duen ikastetxeak edo berrezitzaileak izenpetutako memoria bat erantsi beharko da. Memoria horretan, ikastetxearen ezaugarriei buruzko informazio zehatza jaso beharko da, asteko ordu kopurua eta ematen duen ikastaro eta espezialista bakoitzeko, bai eta ikasturteko hileko eta guztizko kostua ere.

Bateraezintasunak

Ez da laguntzarik edo subsidiorik emango, baldin eta haien gastuak zerbitzu edo funts publikoek edo, hala badagokio, zentzorei dagokien zerbitzua finantzatzeko emandako laguntzek estaltzen badituzte. Era berean, ez dira laguntzak eta subsidioak emango doako zerbitzu bat bete nahi dutenean.

Eskola-garraiorako laguntza eta sorospena bateraezinak dira Hezkuntza Sailak antolatutako eskola-garraioaren erabiltzaile-izaerarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko

ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioari buruzko urriaren 31ko 164/2023 Dekretuan jasotako banakako laguntzekin, hezkuntza-gaietan eskumena duen sailak finantzatuta.